

SARIKETAREN OINARRIAK ARGAZKI LEHIAKETA "ZER DA ZURETZAT LANA?"

EUSKADIKO BAKEA ETA ELKARTASUNA FUNDAZIOAK ARGAZKI LEHIAKETA HAU IZANGO DA GAIA: ZURE HIRIKO EGUNEROKO LANA

LEHIAKETAREN GAIA

"Zer da zuretzat lana?" lehiaketa herritarren lan-errealitatea ezagutzea du helburu, gizarte-argazkien bidez, eta lan-eguna erakustea, bai El Salvadorren, bai Gipuzkoan.

Gaur egungo osasun krisi globalak eta haren ondorioek zuzenean eragin diote lan arloari, munduan milaka pertsonak galdu edo aldatu dute beren lana. Lehiaketa honen bidez, zure hirian edo udalerrian argazkiak izan duen eragina ezagutu nahi dugu. Parte hartu nahi baduzu, bidali zure argazkiak!

PARTE HARTZEKO OINARRIAK

- 18 urtetik gorako edonor.
- Gipuzkoan edo El Salvadorean bizi izan obra aurkezteko unean

PRESENTACIÓN DE LAS FOTOGRAFÍAS

- Pertsonako gehienez 6 argazki aurkeztu ahal izango dira.
- Argazkiak onartuak izateko, gutxienez 12 megapixeleko kamera digitalarekin egin behar dira, JPEG formatuan.
- Formatu digitalean bidali beharko dira, e-postaz, honako helbide honetara:

pazsolidagipuzkoa@ccoo.eus

- Ondorengo dokumentazioa atxikirik izan beharko dute:
 - Measuren Gaia: Argazki Lehiaketa
 - Identifikazio-dokumenturen baten fotokopia
 - Gipuzkoan edo El Salvadorren bizi dela egiaztatzea, adierazpen pertsonal baten bidez.
 - Argazkiaren izenburua eta azalpen laburra
 - Telefonoa eta helbide elektronikoa

*Antolatzaileak ziurtzat ematen du obra aurkezten duen pertsonak dituela haren gaineko eskubideak; hori dela eta, ez du inolako erantzukizunik izango lehiakideen artean alde horretatik zerbait gertatuko balitz.

SARIAK

Sariak honako hauek izango dira:

1 Saria: 200 euros // 2 Saria: 100 euros // 3 Saria: 50 euros

- Zenbateko horiei indarrean den legearen arabera atxikipenak kenduko zaizkie.

EPAIMAHAIA

- Epaimahaia antolatzaileak izendatuko du, eta gai horretan erreferentziazkoak diren lau lagunek osatuko dute. Antolatzailearen eta epaimahaiaren artean zehaztuko dituzte ebaluatze- eta bozketa-sistema. Epaia eskuragarri egongo da eskatzen duenarentzat.
- Irabazleen zerrenda www.pazysolidaridadeuskadi.org webgunean argitaratuko da eta 2021eko urriaren 7a irazbaleak izenbatuko ditugu. Epaimahaiaren iritziz aurkeztutako obrek ez badute maila nahikoa, sariak hutsik utz ditzake.
- Epaia apelaezina izango da.

EUSKADIKO BAKEA ETA ELKARTASUNA FUNDAZIOAREN BETEBEHARRAK

Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioa honetara konprometitzen da:

- Sari-emateaz eta sariak erakusteaz publizitate bidezko zabalkundea egitera, antolatzen dituen jarduerak hedatzeko erabili ohi dituen komunikabideen bidez.
- Zehaztutakoaren arabera, publizitatea egiteko, Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioak bere gain hartzen du, publizitate-materialaren editore gisa, jasotzen dituen lanetan aldaketak egiteko eskubidea.

HAUTATUTAKO AUTOREEN BETEBEHARRAK

Hautatutakoek-finalistek zein sarituek- nahi dutenerako erabili ahal izango dute aurkeztutako lana, baldintza honekin: Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioak sustatutako lehiaketan lorturiko kalifikazioa adieraztea.

BESTE XEDAPEN BATZUK

- I. Aurkeztutako lanen egile-eskubideek bere horretan jarraitzen dute; aldi berean, argazki sarituak eta finalistak doan lagatzen zaizkio Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioari, haren promozioetan erreproduzitzeko eta hedatzeko eskubidea barne delarik. Inongo kasutan ez zaizkie beste batzuei lagako, ez bada egilearen baimenarekin. Antolatzailea konprometitzen da egilea nor den esatera, haren irudiren bat erreproduzitzen den bakoitzean. Parte-hartzaileak konprometitzen dira aurkeztutako obretan hirugarrenen eskubiderik ez egotera, baita aurkeztutako obren gaineko irudi-eskubiderik ez erreklamatzerara ere.
- II. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein gertakari, baita horien interpretazioaren gaineko edozein zalantza ere, Bakea eta Elkartasuna Fundazioaren irizpidearen arabera ebatziko du izendatutako epaimahaiak.
- III. Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauetan zehaztutako xedapen guzti-guztiak onartzea.
- IV. Aukeratutako argazkiak Gipuzkoako udalerrietan erakutziko dugu.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

